

Euskaldunen alfabetatzeak hasia eta A.E.K. zehar. Sorrera eta lehen ekintzen iturriak

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakuntzak, sorrera bertatik izen-deitura jakinak ditu. Baina, hortaz, badirudi batzuk oraindik ez direla ohartu. Horregatik, 1995.eko abenduaren 31ko Egunkaria (11. or.) irakurri zute-nek nahasmendua aurkitu zitekeen "HABE eta AEK-ren arteko akordioa" deritzan artikulua hartan. Batzuk behintzat, aski harrituak gelditu ginen honako hau bertan irakurtzeaz: "AEK, 1969an herri ekimenari esker sortu zene-tik gaur egun arte helduak euskaldundu eta alfabetzeko lan eskerga egin eta gizarte onarpen handia lortu duen herri elkarte-a da".

Eugeniusz Frankowskik argi utzi zigun 1930ean Eusko Ikaskuntzak Bergaran herri arteaz ospatu ziren batzar haietan. Sarrerako hitzaldi jakingarria izan zen poloniarrena, argi adieraziz, herri arte izango ziren ekintzek noizbait egileren bat izan zutela, denborarekin izen-

gabeko bihurtu baziren ere; herriagandik berez ezer sortzen ez denezkero. Ikus V Congreso de Estudios Vascos. *Arte Popular Vasco* (1934) liburukiaren 5. orrialdean.

Baina AEK delakoak badu sorrera zein ekintzaren oroit-idatzizko lekukotasun ezagunik ere. Horregatik ez da sortzaile izengabeko bihurtu den horieta-koa. Gainera, ez du hain antzina-ko historia bizi garenok ez gogo- ratzeko.

Sortzaile eta eragileak ez ze- biltzan eskerronaren bila, baina eskertxarrak jasotzeko ere ez.

Bakoitzari berea Jainkoaren legea, esan ohi da euskaldunon artean. Euskaldunen Alfabetatze kanpainak sortze hura, euskaldu- nok eskolarik ezagatik gure hiz- kuntza analfabetoak ginelako, Ri- kardo Arregi zenaren idea izan zen eta Euskaltzaindiak eman zion babesa eta laguntza.

Adibidez, ikus ditzagun

Euskaltzaindiaren batzar agiriak, 1996ko urtarrilaren 28kotik hasita (*Euskera*, XIII, 1968, 313. or), non zekarren honako hau: "San Martin, Arregi eta Lasak firmatuta eskabide bat artu da euskaldunen alfabetizazio kanpaina bat egiteko". Onartu zen eta une berean batzorde bat izendatu Euskaltzaindiaren babespean ekintza hori aurrera eramateko.

Geroztik behin baino gehiagotan eman ziren ekintzen berriak, baina hemen ez dugu guziak aipatzerik, aipagarrienak baizik. Zehaztasun gehiago nahi dituenak jo beza 1996tik aurrera Euskaltzaindiaren Euskera agerkarian argitaraturik azaltzen diren "Batzar agiriak"

Lehenik Euskaldunen Alfabetatze soila zenari Euskalduntzea gehitzetik deitu zen AEK eta ondoko ekintzen kontu emateaz ere anitz idatzia eta argitaratua da. Era orokorrez, ikus *Euskera* XXII, 1977, 913-915. orr.

Geroago Euskaltzaindiko batzordeen bir-antolaketaz ordea, ikus *Euskera*, XXIV, 1979, 79-80. orr., ale berean organigrama osoa erantsiz.

Bestalde, ikus gai hortaz J.M. Satrustegiren xehetasunak: "Euskal Alfabetatze ekintzaren lehen iturriak", (*Euskera*, XXVI, 1981, 159-169. orr.).

Eta, azkenik, 1981ean Jaurilaritzak HABE sortzeaz alfabetatze lanaren babesba bere lepora hartu zuenean Euskaltzaindiak utzi zuen egiteko hori. Ikus *Euskera*, XXVI, 1981, 761, or.

Azkenaldi horretan Jaurilaritzako Kultur Sailarekin hitzarmena betetzeko ahaleginik ere ez zen falta izan. Horren lekuko dira Luis Alberto Aranberri "Amatiño" eta Joan Jose Txabarri jaunak. Orduan zergatik nahi ez zutenaren berri, inork ematekotan, Xabier Aizpurua berak edo eman beharko luke.

Juan San Martin